

## Sala Baratzak Aretoa eta Sleepwalk Collectivek

Noche #15 **SCRATXE** Gauaren edizio berrian parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Gasteizko Baratza Arteoan izango da, **AZAROAREN 27an**.

Irakur itzazu deialdiaren oinarriak eta bidali zure proposamena [sleepwalkproyectos@gmail.com](mailto:sleepwalkproyectos@gmail.com) helbidera **UZTAILAREN 26a BAINO LEHENAGO**.

**Artista Eszenikoen BILA** gabiltza: sortzaileak, interpreteak, zuzendariak, performerrak, antzerki konpainiak, koreografoak, dantzariak... sortze prozesuan dauden proiektu eszenikoak aurkeztu nahi dituzten artistak, hain zuzen.

Publikoaren aurrean ideia berriak probatzeko **AUKERA** paregabea da, sorkuntza zaharrak berreskuratzeko momentua edota ohiko formatu eta lekuetan erakusteko zailak diren ez-ohiko proposamenak aurkezteko lekua.

Erakusketa eta gero **TOPAKETA** bat egongo da non zure lana publikoarekin zein beste artistekin **eztabaidatzeko eta aztertzeko** aukera izango duzu.

Esperimentu eszenikoak, prozesuak, garapenean dagoen materiala **“funtziona dezaketen ideia bitxiak”**. Arraroa, magikoa, ustekabekoa... hitz bakar batean:

### ETORKIZUNA

Une honetan, etorkizuna zalantzazkoa da, ez baitakigu edukierak udazkenean nolakoak izango diren, baina erakundeak komunikazio aktiboa izango du edozein gorabehera konpontzeko eta une bakoitzean indarrean dagoen araudira egokitzeko.

Jarraian, irakur itzazu oinarriak arretaz.

Baratza aretoari buruzko info gehiago: [www.salabaratza.com](http://www.salabaratza.com)

## BALDINTZA OROKORRAK:

1. Proposamenek ezin dute 20 minutu baino gehiago iraun.
2. Behar teknikoek xumeak izan behar dute eta izena emateko fitxan zehatu beharko dira
3. Proposamen estiloa eta formatua libreak dira, beti ere ARTE ESZENIKOEN mugen barruan sartzen direlarik. Proiektuak haien kalitate eta sormenagatik baloratuko dira.
4. Haurrei zuzendutukako proposamenek ez daukate lekurik.
5. Antolakuntzak espazioa prestatuko du eta piezaren muntaian eta ejekuzioan laguntza eskainiko du. Eszenografia, objektuak eta behar tekniko bereziak artistaren ardura izango dira.
6. 6 artista/konpainia egongo dira espazio eszeniko eta baliabide berak partekatzen, eta ekitaldiaren egunean piezen arteko aldaketak gehienez 10 minututan egingo dira.
7. Muntaia eta proba egiteko denbora gutxienez ordu 1ekoa eta gehienez 2 ordukoa izango da.
8. Antolakuntzak 200€ (zergak barne) eta eguneko janaria ordainduko dizkie artista edota konpainiei. Gasteiztik kanpoko lekuetatik datozen artistei garraioa ordainduko eta lo egiteko lekua emango zaie. Ordainsariak jasotzeko, faktura bat aurkeztu beharko da.
9. BARATZA ARETOAK artistetako/konpainietako bati/batzuei egoitza artistiko bat emango dio aurkeztutako lana garatzeko, 500€ + baliabide teknikoetarako, eta baita Scratxe Gauaren hurrengo edizioan lana estreinatzeko aukera emango dio ere.
10. Antolakuntzak uztailean emango du proposamenen aukeraketaren berri.

---

**BARATZA ARETOA** kultura, oro har, eta kultura, bereziki, Arte Eszeniko Garaikideak sustatzea helburu duen topagune burujabea da. Ikerketa artistikoa eta esperimentazioa bultzatzea du ardatz nagusitzat. [www.salabaratza.com](http://www.salabaratza.com)

**SLEEPWALK COLLECTIVE** nazioarteko konpainia saritua da, eta Espainia eta Erresuma Batuaren artean esperientzia eszeniko intimoak sortzen ditu. Gaur egun, sorkuntza, erakusketa eta kudeaketa kulturala uztartzen dituzte, baita beste prestakuntza-jarduera batzuk ere, eta sortzen ari diren artista gazteen proiektu eszenikoei laguntzen diete.

